



BIZKAIA BBK 2019 PROGRAMAREN OINARRIAK

XEDAPEN OROKORRAK

BBK Fundazioak (aurrerantzean BBK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean DFB-BFA) ekinbide berria jarri dute martxan, BIZKAIA BBK programa. Programa honek bekak ematen dizkie unibertsitateko titulua duten gazteei, prestakuntza espezializatua jaso dezaten atzerriko unibertsitateetan, eta ondoren kontratazioa Bizkaiko punta-puntako enpresa batean.

1.- XEDEA

BIZKAIA BBK Programaren xedea unibertsitateko titulua duten gazte bizkaitarrak munduan erreferente diren zentroetan prestatzea da, modu erabakigarri eta eraginkorrean lagundu dezaten Bizkaia hobea eta prestatuagoa eraikitzen etorkizunari bermez aurre egin ahal izateko, eta hori lehentasunezko sektore gisa identifikaturikoetan (Big Data, Energia, Aeronautika, Finantza Huba, Automobilgintza eta Zilarrezko Ekonomia) eraginez.

2.- PERTSONA ONURADUNAK

BIZKAIA-BBK Programaz baliatzeko aukera izango dutenak baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak dira:

- a) Bizkaian jaiok edo administrazio-egoitza bertan dutenak, gutxienez eskabideak aurkezteko epea zabaldu aurre-aurreko 12 hilabeteetan, salbuespenak onartu izan ahalgo dira epe hori baino denbora laburragoan, ikasketak edo lana direla eta, hautagaiek Bizkaitik kanpo bizi behar izan baldin badute aldi batez.
- b) Graduoko unibertsitate-titulazioa, deialdi bakoitzeko hautespenezko-prozesua bukatu baino lehen lortua.

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

Unibertsitate pribatuetan edo/eta atzerrian lorturiko tituluak onartuko dira, betiere agintaritzak eskudunak homologaturik baldin badaude. 2019/2020 ikasturterako azken ikasturtean parte hartzen duten hautagaien aplikazioak aztertuko dira.

Lehentasuna izango dute eta bereziki balioetsiko dira oro har lehentasunezko arloaren, eta bereziki eskaintako prestakuntzaren, eskakizunetara hobekien egokitzen diren graduak. Masterretako bakoitzean eskaturiko graduei buruzko argibide gehiago izateko, ikus 2. taula: Unibertsitate bakoitzean onartua izateko irizpide bereziak.

- c) 35 urte bete gabe izatea deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean. HEC Master in Management graduondoko prestakuntza-programan izan ezik, horietan hautagaiak ezingo baitute 30 urte baino gehiago izan deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean.
- d) Graduondoko ikasketak egiteko erabiliko den hizkuntza jakitea, dagozkion ziurtagirien kopiekin egiaztatuz maila.

3.- PRESTAKUNTZA-IBILBIDEEN DESKRIBAPENA

3.1.- Faseak

BIZKAIA BBK programan 2 fase daude, prestakuntzarako denboraldi eta ezaugarri ezberdinekin; honako hauek dira:

- a) 1. fasea: Prestakuntza espezializatua nazioartean erreferentziako zentroetan.

Programaren hasierako fase honetan, hautaturiko pertsonak Graduondoko tituluak lortzeko ikastaroan parte hartuko dute ardatz estrategiko bakoitzari esleituriko erreferentzia-zentroetan. Sektorerik horretan lider diren enpresek identifikaturiko erronkei erantzun dieten alor espezifikoaren ezagutzan sakontzera zuzenduta egongo da ikastaroa. Graduondoko prestakuntza nahitaez aurrez aurreko eta dedikazio osoko modalitatean egin behar du hautagaiak. Masterraren hasiera 2020ko irailean eta urrian izango da.

- b) 2. fasea: Bizkaiko enpresetan laneratzeari.

Fase honetan, aurretiazko prestakuntza-fasea amaitu ostean eta graduondoko tituluak lortuta, hautagaia Bizkaiko erreferentziako enpresa batean sartuko da, egin duen prestakuntzari dagokion lehentasun-arloan, lan-kontratuarekin, eta DFB-BFA, BBK eta aipaturiko enpresa laguntzailearen arteko aurre-akordioaren baldintzen pean.

Lan-kontratuak gutxienez 2 urtekoa izan behar du, eta enpresak goi-mailako tituludun bati eskaintzen dizkion lan-baldintzen baliokideak eman beharko dizkio, eta betiere lanaldi osokoa izango da.

3.2.- Onuradun eta ibilbide kopurua

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

Onuradunak ahalik eta gehien onartuko dira, diru-hornidura (170.649,62 €) eta Unibertsitate eta Erakundeek onartutako deialdiaren onuradunek aukeratutako prestakuntza osoaren kostua kontuan hartuta. Lehenetsuneko sektoreetan hainbat ibilbide daude, bakoitza bere ikuspegiarekin.

Bizkaia talent-ek, Bizkaia BBK programaren Jarraipen Bitariko Batzordearen baimena jaso ondoren, diru-horniduraren zenbatekoa handitu ahal izango du, lortutako emaitzen arabera, unibertsitateek eta enpresek onartutako hautagai-kopuruaren arabera.

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

1. taula: modalitateen laburpen-taula (lehentasunezko sektoreak, sektore bakoitzeko ibilbideak, ikastaroaren titulua, Unibertsitatea, ikastaroaren iraupena)

Lehentasunezko sektorea	Harrerako unibertsitatea	Graduondoko titulua	Graduondoko iraupena (hilabete)	Enpresa
Big Data	Strathclyde	Msc, PgDip Data Analytics	12	Iberdrola Ormazabal Euskaltel
	Ecole Polytechnique + Hec paris	MSc Data Science for Business	24	Gamesa
Finantza HUBa	HEC Paris	HEC Master in Management Grande Ecole (especialización en Management)	24	Fineco
Aeronautika	Cranfield	Aerospace Propulsion option - MSc in Thermal Power VU	12	ITPAero
Energia	Strathclyde	MSc, 5G Advanced Communications	12	Iberdrola
	European Institute of Innovation and Technology (EIT)	MSc SENSE – Master’s in Smart Electrical Networks and Systems	24	ZIV Aplicaciones y Tecnología
Automobilgintza	Saarland University, Luleå Technical University, Barcelona Tech, Université de Lorraine	Advanced Materials Science & Engineering (AMASE) Master	24	Gestamp
	RWTH Aachen	M.Sc. Production Systems Engineering	18	CIE Automotive
	Esslingen	Master of Engineering in Automotive Systems	18	MTC Maier Technology Center

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

Bizkaia-BBK programak aukera izango du graduondoko prestakuntza alternatiboa eskaintzeko lehenetasunez planteaturikoen orde. Dena den, beti egongo da ziurtatuta egingo den Masterraren kalitatea.

Hautagaien programa betetzeko aurreko modalitateetako bat baino gehiagora aurkeztu ahal izango dute beren hautagaitza, baina horietako bat bakarrik egin ahal izango dute, betiere bere baldintza edo eskakizun berezietara egokitzen badira (kontsultatu 2. taula: Unibertsitate bakoitzean onartua izateko irizpide bereziak). Azkenean hautagaia ibilbide batean baino gehiagotan hautatua izaten bada, bere interes eta kezketara gehien egokitzen den hura aukeratzeko modua izango du.

4.- ONARTUA IZATEKO BALDINTZAK ETA ESKATURIKO DOKUMENTAZIOA

Zeure izangaitzarako lehenengo eskabidean, honako hauxe baino ez duzu aurkeztu beharko: graduoko titulua (edo, hala badagokio, graduoko azken maila egiten ari zarela egiaztatzen duen ziurtagiria), espediente akademikoa eta Bizkaiko auzotasun administratiboaren ziurtagiria. Behin, zure eskaera aztertu ondoren, Bizkaia BBK programan parte hartzeko aukeragarria bazara, zure ikasketak egin nahi dituzun graduondoko eta unibertsitateko dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.

Prozesu osoan, zeure graduondokoa egiteko aukeratu duzun unibertsitateak eskatutako agiriak baino ez ditu eskatuko Bizkaia Talentek. Horrez gain, nahitaezkoa izango da administrazio-azotasunaren egiaztatzea Bizkaian.

Eskabide-formularioari honako dokumentu edo agiri hauek erantsi behar zaizkio:

- a) NAN eta pasaportearen fotokopia
- b) Txartel tamainako argazki berria, .jpg edo .jpeg formatuan
- c) Bizkaiko administrazio-egoitzaren egiaztatzea edo jaiotza-agiria Bizkaian jaio eta administrazio- egoitza kanpoan baldin badute
- d) Unibertsitate-titulazioa honako agiri hauetakoren baten bidez egiaztatuko da:
 - Gradu-tituluaren kopia.
 - Titulua oraindik eskuratu ez bada, tituluaren eskabidearen frogagiria, titulua jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztatzearekin.
 - Graduoko azken maila egiten egonez gero, hori egiaztatzen duen unibertsitateak egindako ziurtagiria, amaiera-eguna adierazita.

Ondorengo taulan (2. taula: Unibertsitate bakoitzean onartua izateko irizpide bereziak) zehaztuko dira graduondoko prestakuntza bakoitzean eskaturiko titulazioak.

- e) Hautagaitzari balioa eman diezaioketen beste titulazio batzuen kopia (egindako masterrak eta/edo beste prestakuntza batzuk).

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehenetasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

- f) Espediente akademikoaren kopia, ofizialki ingelesera transkribatua, non agertuko den dagokion titulazioaren proba orokorra gainditu izana adierazten duen nota, eta titulazioa eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria.

Atzerrian edo Espainian publikoak ez diren zentroetan lorturiko tituluak agintaritza eskudunak jaulkitako homologazioarekin batera aurkeztu behar dira.

- g) Unibertsitate titulua ikasi deneko unibertsitateak igorritako ziurtagari edo dokumentuaren kopia non promozioko ranking orokorreko postua egiaztatzen den.
- h) Curriculum Vitae eta orrialde bateko laburpena, biak ingelesez.
- i) Motibazio-gutuna ingelesez, non azalduko diren ibilbide zehatz bat (Masterra eta ardatz estrategikoa) aukeratzeko arrazoiak.
- j) Bi gomendio-gutun ingelesez, horietako bat gutxienez egin den graduko irakasle batena izanik.

Gutunen formatua malgua da, betiere honako alderdi hauek kontuan hartzen badituzte:

- Hautagai den pertsonaren eta gutuna egin duenaren arteko harremana
- Hautagaiaren ibilbide akademikoa/profesionala
- Hautagaiaren gaitasunak, merezimenduak eta interesak hautaturiko modalitatean.
- Eskutitza idatzi duenaren sinadura.
- Ahal izanez gero, gutunaren egileari dagokion erakundearen/enpresaren logotipoa eta estampa.

Egileari gutuna gordetzeko eskatzea gomendatzen da, hauek harrera unibertsitateengandik eskatu ahal izango daitezkeelako prozesuko hurrengo fasean.

- k) Lanbide-esperientzia izanez gero, agiria ingelesez honako hauek egiaztatuz:

- Enpresaren/erakundearen helbidea eta estampa.
- Harremanetarako datuak eta erreferentzia gainbegirale edo arduradunari buruz.
- Kontratuaren hasiera- eta amaiera-data (baldin eta amaitu bada).
- Kontratuaren asteko ordu-kopurua

- l) Ingeleseko tituluaren (TOEFL edo TOEIC edo IELTS edo Cambridge) kopia. Eskatzen den gutxieneko maila tituluaren arabera:

- IELTS Academic – 6.5 overall [with no individual component below 5.5 (or equivalent)]. TOEFL – 92 points internet based os its equivalences in paper based or computer based points Pearson PTE Academic – 65
- Cambridge English Scale – 180
- Cambridge English: Advanced – C

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

m) Ingelesa ez den atzerriko beste hizkuntza batzuen ziurtagirien edo tituluen kopia.

n) Euskara-mailaren egiaztagiriaren kopia; balorazio-irizpide hau ez da baztertzaileria izango.

Hautagaiak aukeratutako ibilbide bakoitzerako behar diren datu eta dokumentu guztiak betetzeko arduradun bakarra izango da.

Ondorengo taulan ibilbideetako bakoitzaren graduondoko prestakuntzara sarbidea ematen duten titulazioak agertzen dira, eta onartua izateko baldintza bereziak. Aurreko dokumentazioaz gain, unibertsitateek aukera dute elkarrizketa labur bat egiteko hautagaiaren azken aukeraketa egiteko.

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

2. taula: Unibertsitate bakoitzean onartua izateko irizpide bereziak

Harrerako unibertsitatea	Graduondoko titulua	Onartua izateko baldintza bereziak
Strathclyde	Msc, PgDip Data Analytics	Second-class Honours degree, or equivalent, in mathematics, the natural sciences, engineering, or economics/finance. Applications from those with other degrees are also encouraged if you have demonstrated a good grasp of numerical/quantitative subjects.
Ecole Polytechnique + Hec paris	MSc Data Science for Business	Bachelor in Science, Bachelor in Engineering or Bachelor in Business or in Economics. GMAT or GRE or TAGE MAGE official test score report.
HEC Paris	HEC Master in Management Grande Ecole (especialización en Management)	Bachelor degree of at least three years having obtained 180 ECTS in any field of studies (engineering, social sciences, sciences, arts, etc.). Not older than 30. GMAT or GRE or TAGE MAGE official test score report.
Cranfield	Aerospace Propulsion option - MSc in Thermal Power VU	A first or second class UK Honours degree (or equivalent) in engineering, mathematics, physics or an applied science.
Strathclyde	MSc, 5G Advanced Communications	A first or good second-class UK Honours degree or equivalent overseas qualification in electronic, electrical or communications engineering, or a related physical sciences subject from a recognised academic institution.
European Institute of Innovation and Technology (EIT)	MSc SENSE – Master’s in Smart Electrical Networks and Systems	A completed Bachelor’s degree (worth a minimum of 180 ECTS credits). If you are in your final year of undergraduate education, you can also apply.
Saarland University, Luleå Technical University, Barcelona Tech, Université de Lorraine	Advanced Materials Science & Engineering (AMASE) Master	BSc.- or equivalent in the field of materials science and engineering, physics, chemistry, mathematics or other engineering disciplines. Entrance university: Sufficient knowledge of the language of instruction of the Entrance university. Second university: At least some basic knowledge of the language of the Second university is required; you can also apply without any knowledge, but you have to be aware that the courses will be held in the local language. It is therefore advisable to start learning the language as soon as possible.
RWTH Aachen	M.Sc. Production Systems Engineering	Bachelor in Science, in Engineering. The english score reports must not be older than two years by 1 August of the year the degree course you are applying for will start. Applicants who include a certificate demonstrating at least level A1 German may be given preferential treatment.
Esslingen	Master of Engineering in Automotive Systems (Car electronics specialization)	Bachelor of Mechatronics, Electrical Engineering or equivalent Applicants to the "car electronics" (A1) major are required to have completed at least 20 credit points in the field of electronics or electrical engineering in their undergraduate studies. 20 credit points are equivalent to ~300 h lectures. Documents testifying to a basic German language knowledge of Level A1 (CEFR)

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

Gaztelaniazko bertsioarekin edo beste hizkuntzetako bertsioekin arazo edo inkoherentziarik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna

Gogoratu zure graduondoa finantzatu ahal izateko Unibertsitateak eta Bizkaiko enpresak onartu behar zaituztela, gutxienez 2 urtez lan egiteko konpromisoa hartu behar duzu.

HEC Parisek eskainitako graduondokoetan interesatuta dauden hautagaiak arreta berezia jarri behar diote “GMAT or GRE or TAGE MAGE official test score report-ei”. Pertsona hauei, test hauetako bat, 2020ko urtarrilean egitea gomendatzen diegu.

5.- LAGUNTZA IZAPIDETZEA

Eskatzaileak aurrez bere burua erregistratu behar du_

<https://www.bizkaiatalent.eus/> atarian, sartu eta eskabide-formularioa bete ahal izateko.

Behin erregistratu ondoren eta Bizkaiko Talentaren extranetearen profileko datu guztiak sartuta (pdf formatuan CV barne), beharrezkoa izango da eskabide-formularioa betetzea eta 4. puntuari eskaturiko dokumentazioarekin batera bidaltzea.

Informazio gehiago: <https://bizkaiabbk.eus/eu/>

Informazio zehatza eta osoa profilean sartzen bada, laguntza eskuratzeko aukera gehiago izango duzu. Eskatzailearen datuen egiazkotasuna eta datu esanguratsuak ez aipatzea ere eskatzailearen ardura izango da.

Eskaera ondo egiteko bizkaiabbk@bizkaiatalent.eus helbide elektronikoa duzu kontsultak egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK Fundazioak eta Bizkaia talent ez dira unibertsitateek egin ditzaketen baldintzen aldaketak arduratzen, eskatzaileak eguneratzeak kontsultatu beharko ditu.

6.- DEIALDIAREN EPEAK

Eskabideak eta dokumentazioa jasotzea: urtarriletik 2020ko martxoak 13ra

Azken erabakia: 2020ko apirilean - maiatzean

Onuradunekin konpromisoak izenpetzea: 2020ko maiatzean - ekainean

Formakuntzaren hasiera: iraila – urria 2020

Bizkaia Talentek fase bakoitzeko epeak zabaldu ahal izango ditu programaren beharren arabera.

Izangai hautagarriak berehala onartuko dira, deialdia itxi arte itxaron gabe programara atxikitako unibertsitate eta enprekin hautaketa-prozesuari hasiera eman ahal izateko.

Hobe da eskabidea ahalik eta lasterren egitea, eskabidea ebaluatzeko prozesua laburragoa izan dadin.

7.- HAUTAPEN-PROZESUA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, hautagaiak aukeratzeko prozesua hasiko da, eta merezimenduaren balorazioa eta gaitasuna izango dira prozesuaren printzipio gidariak.

Hautagaien merezimenduaren balorazioa aurrez aipaturiko dokumentu guztietan oinarriturik egingo da.

Gero, programan parte hartzen duten unibertsitateek deialdian planteaturiko baldintzak betetzen dituzten hautagaiak aukeratu dituzte. Eskaturiko dokumentazioa biltzen egindako

ahaleginak Granduondoko Programetan eskaturiko betekizun edo baldintzak betetzea erraztuko du.

Hautapen-prozesuan azken mugarría hautagaien gaitasuna baloratzea da, eta hori unibertsitateek aukeraturiko hautagaiei elkarrizketa pertsonala eginez burutuko da. Deialdian proposaturiko titulazioetarako postu bat eskaintzen duten enprekin zuzenean egingo da.

8.- HAUTAPEN-BATZORDEA

Hautapen Batzordean honako hauek egongo dira:

a) DFB-BFAn edo BBKn eskudun den Zuzendaritzako titularra, edo berak eskuordeturikoa.

b) Itzulera-fasean hautagaia kontratatuko duen konpainiaren ordezkariak, programan laguntzen duen enpresa horretan ardura-karguak dituztenak.

Hautapen Batzordearen eginkizuna fase honetara iritsi diren hautagaien eskabideak aztertzea da, gaitasunak baloratzea eta profila zenbateraino egokitzen den postura eta enpresaren kulturara; eta azkenik, organo eskudunari zerrenda ordenatuak ematea, hautagaiak eta ordezekoak erabakitzeko proposamenekin.

9.- ONURADUNEN ONURAK ETA BETEBEHARRAK

9.1.- Zenbatekoa

1. fasean edo prestakuntzakoan, DFB-BFA eta BBK-k finantzaturiko zenbatekoa lortu nahi den prestakuntza-helburua lortzeko beharrezko gastuak estaltzera zuzenduta egongo da. Destino bakoitzean eta garatu nahi diren prestakuntza-programetako bakoitzean dauden bizi- eta sarbide-baldintzak kontuan izanda finkatuko dira diru-kopuruak.

Diruarekin, batetik, ikastaroaren matrikula ordainduko da; eta bestetik, programan sartzeak berekin dakartzan gastuak: besteak beste, hegazkin-bidaiak, bisatuak, egoitza-baimenak, ostatua, mantenua, aseguruak eta eskatzaileak egin behar izan ditzakeen beste gastu batzuk.

Halaber, aurrez ordainagiria aurkeztuta, programak bere gain hartuko du hautagaiek izan dezaketen kostua Programara aplikatze hutsagatik.

1. faseko ordainketa honela egingo da:

Ikastaroko matrikularen ordainketa zuzenean Unibertsitateari egingo zaio. Bizi-kostuari dagokion zenbatekoaren ordainketa, %40 destinora abiatu aurretik ordainduko zaio interesatuari berak Kutxabanken duen eta eskabide-formularioan adierazi duen kontu-zenbakira. Gainerakoa hileroko ordainketen bidez egingo da. Azken hileko ordainketa 1. faseko prestakuntza normal amaitu bada egingo da, eta DFB-BFAko eta BBKko Zuzendaritza eskudunak egiaztatu ostean onuradunak ondo eta egoki bete duela aurreikusitako programa.

2. faserako dirua enpresa laguntzaileak jarriko du, eta horren kopurua eta ordaintzeko era aldeztu aurretik (programa hasi aurretik) hitzartuko da. Hautagaiaren kontratazioa enpresaren partetik graduondoko ikasketen gainditzeari eta honen titulua lortzeari baldintzatuta dago.

9.2.- Onuradunen betebeharrak

9.2.1.- Eskabidea aurkezteak esan nahi du onartu egin dela deialdiaren oinarri hauetan ezarritakoa.

9.2.2.- Onuradunak beharturik daude honako hauetara:

- a) Emandako diru-laguntza onartzera. Horri dagokionez, programa eman zaien jakinarazpena jaso ostean bost eguneko epean onuradunek ez badiote espresuki eta idatziz uko egiten programari, onartutzat joko da, eta izenpetu beharko duten programaren onartze-agirian geratuko da hori jasota.
- b) Destinora bidaiatu aurretik herrialde hark eskaturiko bisatua, nahitaezko aseguruak eta baimen guztiak lortzera.
- c) Programari dagozkion jardueretara soilik dedikatzen eta destinoko zentro edo erakundearen, baita enpresa laguntzaileen, funtzionamendu-arauak onartzera.
- d) Programa osoa onartzera eta aginduak betetzera destinoko zentroetan edo enpresa laguntzaileetan hasteko epeei dagokienez; edo programaren helburuak betetzera bideraturik dagoen eta DFB-BFA eta BBKko Zuzendaritza eskudunak jakinarazten dion beste edozein agindu betetzera.
- e) Programaren bukaera ona lortzeari eragin diezaiokeen edozein gorabehera Idazkaritza Teknikoari jakinaraztera.
- f) Garaturiko jardueraz eskatzen zaizkion txostenak, eskatzen zaizkion alderdiak zehaztuz, Programaren ardura duen Idazkaritza Teknikora bidaltzera. DFB-BFA eta BBKko Zuzendaritza eskudunak egoki iruditzen zaizkion egiaztapenak egin ahal izango ditu programaren garapenari dagokionez, eta eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute onuradunek.

10.- BATERAEZINTASUNAK

BIZKAIA BBK Programaz gozatzea bateraezina da edozein behar edo lan, ordaindu edo ordaindu bako, egitearekin, ez badago erlazionaturik programaren arlo espezifikoarekin.

11.– PROGRAMAREN ONURADUN-IZAERA GALTZEA

11.1.- Programaren onuradun-izaera gal daiteke, bai programa amaitu delako edo bai onuradunak espresuki uko egin diolako. Hautagai-izaera galtzea bere eginbeharrak ez betetzeagatik ere gerta daiteke, graduondoko ikasketen titulua ez lortzea edo legalki ezarrita dauden arrazoiengatik lan kontratua ez betetzea kasu.

11.2.- Oinarri hauek ez betetzeak, edozein dela momentua, programaren baliogabetze automatikoa suposatuko du. Onuradunak aipatutako konpromisoak beteko ez balitu –edo programaren kondizioetan ezarritako beste edozein-, Programak egokien kontsideratzen duen moduan jokatzeko aukera gordeko du, baita jasotako bekaren kopurua bueltatzea ere.

Hau da, programaren onuradun-izaera galtzeak, bai uko egiteagatik eta bai eginbeharrak ez betetzeagatik, orokorrean, zertu gabeko eskubide ekonomiko guztiak galtzea ekarriko du, baita ere jasotako kopuruak itzuli beharra, eta etorkizunean DFB-BFA eta BBKtik sustaturiko edozein mugikortasun-programatan hautapen-prozesuetan baztertua izatea [salbuetsita geratuko direlarik ezinbesteko kasuak (istripua, gaixotasuna...), behar bezala egiaztatuta]. Ez da eskatuko jasotako edo unibertsitateei zuzenean ordaindutako kopuruak itzultzerik onuradunaren uko egite zehatza graduondoko prestakuntzaren hasiera-data baino bi hilabete lehenago gertatzen bada.

2. fasean, obligazioak justifikazio barik ez badira betetzen, eta fede txarraren eta eragiten diren kalteen nolakotasunaren arabera, enpresan sartu ostean errebokatzeak edo bidezko kaleratzeak zigor ekonomikoa ere ekar dezake berekin.